

Munduko Rugby Txapelketa



Lagisketek puntuak lortzeko aukera polita izango du gaur

Samoak final laurdenetarako sailkapena lortu dezake gaur

DONOSTIA

Hiru partidu jokatu dira gaurko ihardunaldian, Munduko Rugby Txapelketaren barruan. Argentina eta Samoaren arteko partidua da dudarik gabe, ihardunaldi honetako partidurik interesgarriena. Samoak izugarritzko ezustea eman zuen lehen partiduan, Galeseko selekzioa 16-13ko emaitzaz menperatu ondoren. Samoarrek ez zuten teoriarik hurrengo kanporaketarako sailkatzeko aukera handirik, baina txapelketa bikaina egin dute eta final laurdenetarako txartela eskuratzeko aukera dute gaur.

Argentinarek uste baino hobeto jokatu dute, orain arte jokatuak partidu guztiak galdu arren. Porta erretiratu ondoren, bazirudien Pumas ez zutela talde sendoa osatzeko izango, azken urteetan oso itxura eskasa eman bait dute. Hala ere, azken hilabeteetan egindako aldaketek fruitu onak eman dituela dirudi, txapelketa honetan maila polita erakutsi bait dute. Partidu hau gaur arratsaldean jokatu da Ponty Pridd zelaian.

New Zealand eta Italiak emoziorik gabeko partidua jokatu dute Leicesterren. All Blacksek izugarritzko nagusitasuna erakutsi dute txapelketa hasiera honetan, uste baino maila eskasagoa erakutsi arren. Ingalaterraren aurkako partiduan arazo batzuk izan zituzten, baina azkenean bi puntuak irabazi zituzten 18-12ko emaitzaz. EEBBetako taldearen aurka ez zuten lan gehiegi egin beharrik izan, iparamerikarrak txapelketa honetako selekzio ahulena bait da. Italiarrek ez dute partidu

13.00 C+(f)	TB GAUR
Argentina-Samoa (Laburpenak)	
14.50 C+(f)	○
New Zealand-Italia (Zuz.)	
16.45 TF1	
Frantzia-Canada (Zuz.)	

hau irabazteko aukera handirik izango, bi selekzioen arteko alde izugarria bait da. Hala ere, italiarrak garaienaren bila irtengo dira, oraindik sailkatzeko aukera txiki bat bait dute.

FRANTZIA LIDERGOAREN BILA

Frantzia eta Canada D multzoko lidergoaren bila aterako dira gaur. Frantziak oso joko ona egin du orain arte, arerioak nahiko motelak izan badira ere. Oilarrek talde polita osatu dute Txapelketa honetan eta gaurko partiduan bi puntuak lortzeko faboritoa da.

Canada seriotasun handiz jokatu du orain arte. Teorian multzoko azken postuetan sailkatzeko aukera gehien zituen taldea zen, baina partidu politik egin ditu eta final laurdenetarako sailkapena eskuratu du. Gaurko partiduan inongo erantzunik gabe jokatu dute amerikarrek eta hori izan daiteke beren abantailarik handiena.

D multzo honetako lehen postuan sailkatzen den taldeak Ingalaterraren aurka jokatu du final laurdenetan (Ingalaterrak azkenean sailkapena lortzen badu). Bigarren aldiz, New Zealanden aurka neurtu beharko ditu bere indarrak, txapelketa honetako talde gogorrenaren aurka alegia.

Eskoziak arazo ugari izan zuen Irlandako taldea menperatzeko

Ian McGeechanen mutilek B multzoko lidergoa eskuratu dute

Eskoziak 24-15 irabazi zion atzo Irlandari Murrayfielden, eta B multzoko aurreneko postua ziurtatu dute Ian McGeechanen mutilek. Partidu bikaina jokatu zuten atzo bi hamabostekoe, eta aurreneko ordubetean irlandarrak primeran aritu baziren ere, amaieran izugarritzko lana egin zuen eskoziarren hirugarren erroak.

DONOSTIA

Eskoziak eta Irlandak izugarritzko maila erakutsi zuten atzo Murrayfield zelaian. Eskoziarrek lan asko izan zuten lehen zatian, Irlandako jokalariek gogor jokatu bait zuten. Atsedendira, 9-12ko emaitzarekin heldu ziren bi taldeek, beti irlandarren alde. Keyes joko zabaltzailea izan zen Irlandako jokalaria onena. Lehen zati honetan, bera izan zen puntuak lortu zituen jokalaria bakarra, bi zigor kolpe eta drop bati esker. Eskoziak oso ondo defendatu zuen bere eremua, baina erasoan ez zuen beti egiten duen joko bizkorra egiterik izan, Irlandako gizonen presioa handiegia bait zen.

Bigarren zatian, Ian McGeechanen mutilek askoz ere indar gehiago erkin jokatu zuten. Hastings atzelaria

ESKOZIA

- G. Hastings
- Stanger
- S. Hastings
- Lineen
- Tukalo
- Chalmers (Shiel, 43')
- Armstrong
- Cadler
- White
- Jeffrey
- Weir
- Gray
- Burnell
- Allan
- Sole

24

15

Anotazioak:

Eskoziak (9 + 15): *Bi entseiu:* Shiel (56') Armstrong (75'). *Bi transformazio:* G. Hastings (57' 76'). *Hiru zigor kolpe:* G. Hastings (14, 28, 64). *Drop bat:* Chalmers (23)

Irlanda (12 + 3): *Lau zigor kolpe:* Keyes (5, 19, 33, 48). *Drop bat:* Keyes (37)

Arbitroa:

Fred Howard (Ingalterra)

Zelaia:

Murrayfield (Edinburgh) 65.000 ikusle

IRLANDA

- Staples
- Georhegan
- Mullin
- Curtis
- Grossan
- Keyes
- Saunders
- Hamilton
- Robinson
- Matthews
- Francis
- Lenihan
- Fitzgerald
- Smith
- Poplewell

izan zen Eskoziako taldeko onena bigarren denbora honetan. Eskoziarra oso ondo moldatu zen bai erasoan zein defentsan. Bigarren zati honetan bere taldeko puntu gehienak lortu zituen, batez ere zigor kopeei esker. Guztira bi transformaketa eta hiru zigor kolpe lortu zituen atzelari bikainak eta horri esker lortu zuen Eskoziak markagailuan aurre hartzea.

HIRUGARREN LERRO BELDURGARRIA

Eskoziarren hirugarren erroak lan ederra egin zuen atzoko partiduan, munduko onenetarikoa dela frogatuz. Ian McGeechanek hiru jokalaria beterrano

jarri ditu lerro horretan eta emaitzak ezinhobeak izan dira. John Jeffrey da lerro horretako gizonik ezagunena. Bigarren lerroa da dudarik gabe selekzio honetako puntu ahulena. Orain arte, defentsan egindako lan gogorrari esker ez da hutsune hori gehiegi nabaritu, baina hemendik aurrera arazoak izan ditzakete eskoziarrek talde sendoen aurka jokatzeko duenean. Irlandak aldaketa asko egin ditu txapelketa honen aurretik, batez ere jokalaria onenak rugby profesionalera pasa direlako. Hala ere, irlandarrek selekzio sendoa osatzea lortu dute, azkenaldi honetan nahiko malka ibili ondoren.

Australiako taldeak jipoi handia eman zion Galesi Arms Parken

DONOSTIA

Australiako selekzioak izugarritzko jipoi eman zion atzo Galesi Arms Park zelaian (38-3), eta bere multzoko lehen postua eskuratu zuen. Wallabiesek ordezko jokalaria batzuk erabili zituzten, baina ez zuten bi puntuak lortzeko arazorik izan, Galesek oso gaizki jokatu bait zuten.

Galesak hasiera hasieratik erakutsi zuten itxura eskasa eta ez zuten Australiako jokalariek egindako joko serioa erantzuterik izan. Wallabiesek joko itxia egin zuten partidu guztian zehar eta beren hegalekin jokatu zuten behin eta berriz. Hauek bikain jokatu zuten eskura eta nagusitasun osoa erakutsi zuten erasoan jokoan. Campese eta Lynagh izan ziren Australiako jokalaririk onenak.

Galeseko selekzioari dagokionez, oso urduri jokatu zuten defentsan eta ez ziren Australiako hiru laurdenetako lerroa gelditzeko gai izan. Mark Ring izan zen galesen arteko gizonik onena, txapelketa honetan jokatuak gainontzeko partiduetan bezala.



Australiak jipoi handia eman zion Galeseko selekzioari